

ZAHARKITZE PROGRAMATUA

5 aholku eragin txikiagoa izan dezan



Produktu bat behar baino lehen gera daiteke zaharkitua, batezbestekoa baino lehen hondatzen denean. Zaharkitze hori nahita eragindakoa bada, zaharkitze programatua esaten zaio.

1 KONPONDU.

Arropa, altzariak, gailu elektronikoak, jostailuak... Produktua bota aurretik, **saiatu konpontzen**. Produktuaren **bizitza baliagarria** luzatzen duzu, askotan, piezaren bat ordeztearekin soilik.

2 ALDIZKAKO MANTENTZE-LANAK.

Gailuen **bizitza baliagarria luzatzeko**, egin kasu erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideei. Mantentze-lanak erregulariki egitea komeni da, gailuak **egoera onean** egon daitezen eta behar baino lehen hondatu ez daitezten.

3 DISEINU JASANGARRIA.

Produktu berri bat erosi behar baduzu, bilatu **modu jasangarrian** eta **lan-baldintzak** errespetatuz diseinatu direnak.

4 MURRIZTU HONDAKINAK.

Nola? Konpontzea, trukea, alokairua eta bigarren eskuko erosketak sustatuta. Ekintza horiek **baliabide naturalen** erabilera ere murrizten da.

5 KONTSUMO ARDURATSUA.

Zentzuko erosketak: pentsatu zein diren zure beharrak, erosi benetan behar duzuna soilik, eta publizitateak eta modak **ez zaitzatela limurtu**, behar faltuak sorrarazten dituzte eta.